

Plaza

Asteartea, 2009ko irailak 29 - 09:48

[Hasiera](#) [BerriaTB](#) [Parte Hartu](#) [Blogak](#) [Bereziak](#) [Kanalak](#) [Zuzenekoak](#)

[Harian](#) | [Iritzia](#) | [Kirola](#) | [Agenda](#) | **Plaza**

[Berria.info](#) » [Papereko Edizioa](#) » [Plaza](#)

2009-09-24

Tolareko lanaren hasiera ospatzeko, festak

Sagardoa dastatzeko aukera izango dute igandean Lekunberrin eta Astigarragan egingo diren jaietan

ERREDAKZIOA.
Donostia

Sagarra eta sagardoa izango dituzte ardatz igandean Lekunberrin (Nafarroa) eta Astigarragan (Gipuzkoa) egingo diren jaietan.

Tolareko lanen hasiera ospatuko dute Astigarragako jaietan. Horretarako hainbat ekintza prestatu dituzte. 2009ko lehen muztioa dastatu ahal izango da, gainera; han bertan, jendaurrean, usadiozko elaborazio prozesua erakutsiko dute: kirrikoketa, piseiekin sagarra jotzea...

Aurtengo berrikuntzetako bat sagar biltze herrikoa izango da. 300 lagun elkartu nahi dituzte antolatzaileek kizkiarekin sagarrak biltzen.

Arratsaldean, herrien arteko sagardogintzako herri kirolen lehiaketa egingo dute. Eta hori guztiaz gain, argazki rallya, herri bazkaria, azoka eta haurrentzako tailerrak izango dira, besteak beste.

Lekunberrin sagar mota ezberdinen azoka eta erakusketa egingo dute, sagardo dastatzea eta beste, goizeko hamaiketatik aurrera. 12:00etatik 14:00etara, berriz, kirrikoketa emanaldia egingo dute, Baztango kirrikoketarien eskutik.

SAGARDO EGUNAK

Non. Astigarragan (Gipuzkoa) eta Lekunberrin (Nafarroa).

Noiz. Igandean.

[Hasiera](#) | [Euskal Herria](#) | [Ekonomia](#) | [Mundua](#) | [Kirola](#) | [Kultura](#) | [BerriaTB](#) | [Parte Hartu](#) | [Blogak](#) | [Bereziak](#) | [Paperekoa](#)

© **Berria.info - Euskal Editorea S.L.**
 Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain 20140
 Telefonoa: 943 304 030 / Faxa: 943 590 172
berria@berria.info - www.berria.info
[Lege Informazioa](#)

Minority dailies association

bai

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURAREN SAHIA
 Ministerio Publikoaren Kulturaren Departamentua
 DEPARTAMENTO DE CULTURA
 Ministerio de Cultura y Turismo

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa